

**Ordiziako Udala**

2023IOSB0006

Ordizian, **2023ko maiatzaren 16a** UDALBATZARRAK **Aparteko batzarra** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

*En Ordizia siendo el día **16 de mayo de 2023** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el **AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión extraordinaria** con la asistencia de las siguientes personas:*

**LEHENDAKARIA:**

Adur Ezenarro Agirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Maitane Alvarez Garciandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Ainhoa Jimenez Goñi	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jesus M.Lariz Orbezabal	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Itsaso Muñoz Rodriguez	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Lander Mujika Onandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Juan Ignacio Alonso Arratibel	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ainhoa Esnaola Zubeldia


**KONTUHARTZAILEA:**

Irune Soto Cotorro

**BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK:**

**AZTERTUTAKO GAIK:**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:**



**Ordiziako Udala**

2023IOSB0006

1. 2023 ekitaldirako aurrekontu orokorra onartzea
2. 2023ko ekitaldirako plantilla organikoaren hasierako onarpena eta 2023ko lanpostuen zerrenda onartzea.


1. *Propuesta de aprobación del Presupuesto General para el ejercicio 2023.*
2. *Aprobación inicial de la Plantilla Orgánica para el ejercicio 2023 y aprobación de la Relación de puestos de trabajo 2023.*

**GORABEHERAK:**

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 16:00etan.**

**AMAIERA: 16:49an.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1. 2023 ekitaldirako aurrekontu orokorra onartzea**

Proposamena

Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arau Orokorraren 14. Artikuluak ezartzen du udalaren aurrekontu orokorra bere alkate-lehendakariak osatuko duela, eta bertan integratuko direla erakunde autonomoen eta udal-sozietate publikoen aurrekontuak.

Aurrekontu horri buruzko txostena egingo du Kontu-hartzaileak, aipatutako foru-arauren 6. Artikuluan zehaztutako eranskin eta agiri guztiekin, eta korporazioko osoko bilkurara bidaliko da, onar, zuzen edo itzul dezan.

Hauek dira Aurrekontu Orokorra osatzen dutendokumentuak eta eranskinak:

- a) Udalaren berezko aurrekontua
- b) Udalaren berezko aurrekontuaren eranskinak erakunde autonomoen eta udal-sozietateen aurrekontua eta horien egoera bateratua.
- c) 2023ko ekitaldirako Aurrekontuak Betearazteko Udal Araua.
- d) Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza- iraukortasunaren helburuak betetzeari buruzko txostena.
- e) Txosten ekonomiko-finantzarioa.
- f) Diru-laguntza izendunen eranskina

*Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.*

**1. Propuesta de aprobación del Presupuesto General para el ejercicio 2023.**


Propuesta

*El artículo 14 de la Norma Foral 21/2003, General Presupuestaria de la Entidades Locales de Gipuzkoa establece en su artículo 14 que el Presupuesto General del ayuntamiento será formado por su Alcalde- Presidente y que en el mismo se integrarán los presupuestos de los organismos autónomos y de las sociedades públicas municipales.*

*Dicho presupuesto será informado por la Intervención con todos los anexos y documentación detallados en el artículo 6 de la citada norma foral y se elevará al pleno de la corporación para su aprobación, enmienda o devolución.*

*Los documentos y anexos que integran el Presupuesto General son:*

- a) *El presupuesto propio del Ayuntamiento*
- b) *Anexos de presupuesto propio junto con el Presupuesto de los organismos autónomos y sociedades municipales y el estado consolidado de los mismos.*
- c) *Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria para el ejercicio 2023.*
- d) *Informe sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.*
- e) *Informe económico-financiero.*
- f) *Anexo de subvenciones nominativas.*



g) Alkatetzaren memoria.

Alkate jaunak 2023ko ekitaldirako aurrekontu- proiektua aurkeztu du, eztabaidatu eta osoko bilkurak onar dezan. Alkatearen memorian jasotzen dira aurrekontu proiektu honen nondik norakoak.

Aurrekontu orokorrari hasierako onespina emateko erabakia jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, 15 eguneko epean. Epe horretan, interesdunek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte osoko bilkuran, eta behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

Behin betiko onartutako Aurrekontu Orokorra GAOn sartuko da, hura osatzen duten aurrekontu bakoitzaren kapituluka laburtuta, eta dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, argitaratu ondoren.

Honenbestez, eta 2023ko maiatzaren 10ean ospatu zen Antolaketaarako Batzorde Informatiboaren diktamenarekin, honakoa da erabakitzea daramagun

**AKORDIO PROIEKTUA**

LEHENENGOA.- 2023rako proposatutako eta alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua onartzea, kapitulukako laburpenaren honen arabera.

g) Memoria de Alcaldía.

*El Sr. alcalde presenta el Proyecto de Presupuestos para el ejercicio 2023, para su debate y aprobación por el Pleno. En la memoria del alcalde se recogen los pormenores de este proyecto de presupuesto.*

*El acuerdo de aprobación inicial del presupuesto general se expondrá al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por plazo de 15 días durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno, considerándose aprobado definitivamente si durante el citado plazo no se hubieran presentado reclamaciones. En caso contrario, el Pleno dispondrá del plazo de un mes para resolverlas.*

*El Presupuesto General aprobado definitivamente será insertado en el B.O.G. resumido por capítulos de cada uno de los presupuestos que lo integran y entrará en vigor en el ejercicio correspondiente, una vez publicado.*

*A la vista de todo ello y con el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Organización de fecha 10 de mayo de 2023 se propone la adopción del siguiente*

**PROYECTO DE ACUERDO**

PRIMERO.- *Aprobar el Proyecto de Presupuesto para el año 2023 propuesto y redactado por el Sr. alcalde, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:*


ENMENDAKINA

AURREKONTUEN ZUZENKETA PARTZIALA

“Hezkuntza Proiektuak” izeneko 14810132630117 partida

ENMIENDA PARCIAL A LOS PRESUPUESTOS

*La partida Nº 14810132630117 denominada “Proyectos Educativos” se anule y ese*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

baliogabetu eta diru hori "Inbertsioak Urdanetan"-ra pasa (162201323200112 zk.ko partida); azken partida horretan 806.000 € geratuz guztira. Horietatik 600.000 euroren % 60, hau da, 360.000 € Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren bidez finantzatzeko litzateke, eta gainerakoa (446.000 €) udalaren ekarpenetatik.

*dinero pase a "Inversiones en Urdaneta", partida Nº 162201323200112, quedando un total de 806.000 € en dicha partida, de los que quedarían financiados, mediante subvención del gobierno vasco, el 60% de 600.000€, es decir, 360.000€ y el resto (446.000 €) por aportación municipal.*

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate Jauna: Aurreko astean Antolaketa Batzordean azaldu gisan, alde batetik ezohikoa da garai hauetan aurrekontua onartzea baina Kontu-hartzailetzako gorabeherak gorabehera, azkenean Errentariako kontuhartzailea daukagu metaketan eta berari esker, martxora amaierarako likidazioa onartzea lortu dugu eta baita aurrekontu proiektua onartzea ere. Zentzu horretan, orain arte luzatutako aurrekontuan gaude eta horrek eragiten du ezin direla aurten partida guztiak luzatu. Era berean, Next laguntzak betetzeko arazoak daukagu.

2023. urteko Ordenantza Fiskalak onartu genituenean, taseen izozketa bat onartu genuen, salbuespen txiki batekin, eta hori herritarrentzat onura izan den bezala, inbertsioak burutzeko zailtasunak ekarri ditu.

Next laguntzei dagokienean, printzipioz horien epea ez da 2023ko aurrekontuaren epea, izan ere 2025. urte arte luzatzen da.

Era berean, diru-sarrera horiekin inbertsio batzuk egingo dira, baina printzipioz diru-sarrera arruntetatik finantzatzeko dira.

### Debate


*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

Sr. Alcalde: *Tal y como se explicó la semana pasada en el Comité Organizador, por un lado, es excepcional que en estos tiempos se apruebe el presupuesto, pero a pesar de las incidencias en Intervención, finalmente tenemos a la interventora de Errenteria en acumulación y gracias a ella hemos conseguido aprobar la liquidación para finales de marzo y también el proyecto de presupuesto. En este sentido, estamos con el presupuesto prorrogado hasta ahora y eso hace que no se puedan prorrogar todas las partidas este año. También tenemos problemas para cumplir con las ayudas Next.*

*Cuando aprobamos las Ordenanzas Fiscales del año 2023, aprobamos una congelación de las tasas, con una pequeña excepción, y al igual que eso ha beneficiado a la ciudadanía, ha supuesto dificultades para llevar a cabo las inversiones.*

*En cuanto a las ayudas Next, en principio el plazo de las mismas no es el plazo del presupuesto 2023, sino que se amplía hasta el año 2025.*

*Asimismo, con estos ingresos se realizarán una serie de inversiones, aunque en principio se financiarán desde ingresos corrientes.*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Bertan dauden inbertsioak miloi bat eta erdikoak izango lirateke. Lurzoruaren Ondaretik beste 900 mila inguruko inbertsioak egitea proposatzen dugu.

*Las inversiones que hay allí serían de un millón y medio. Desde el Patrimonio de Suelo proponemos realizar otras inversiones en torno a 900 mil.*

Inbertsio nagusien lerroa, Next dirulaguntzei lotuta daude: bai azoka eta merkataritzan eta baita turismoan ere. Horiez gain, hirugarren lerro bat eskatu genuen Urdaneta eraberritzeko baina hori ez dugu lortu. Dena den, aurten proposatzen da beste dirulaguntza iturri batzuen bidez eraberritze lanak egitea.

*La línea de principales inversiones está ligada a las subvenciones Next: tanto en ferias y comercio como en turismo. Además, solicitamos una tercera línea para reformar Urdaneta, pero eso no lo hemos conseguido. No obstante, este año se propone realizar obras de reforma mediante otras fuentes de subvención.*

Kontuan izan Next-era aurkeztearen arrazoiak bat izan zela dirulaguntza 2026. urtera arte luzatzen zela, izan ere, aktibitatea daukan leku bat da eta beraz, ezinbestekoa da obrak faseka egitea. Bai planteatzen da beraz, proiektua adostu eta horren arabera, faseka gauzatzen hastea. Aipatzearen, bigarren inbertsio nagusia, Lurzoruaren Ondaretik planteatzen dena, Zuhaitzkoa da, suteen aurka babesteko eta ondorioz, bigarren eskailera bat egin behar da. Hor Foru Aldundiko dirulaguntza ere eskatu dugu.

*Tener en cuenta que una de las razones por las que se presentó en Next fue que la subvención se prorrogaba hasta el año 2026, ya que se trata de un lugar con actividad, por lo que es imprescindible realizar las obras por fases. Sí se plantea, por tanto, consensuar el proyecto y en función del mismo comenzar a ejecutarlo por fases. Por citar, la segunda inversión principal, la que se plantea desde el Patrimonio del Suelo, es la de Zuhaitzi, con el fin de protegerse contra incendios, lo que obliga a realizar una segunda escalera. Ahí también hemos solicitado la subvención de la Diputación Foral.*

Ez-ohiko pleno hau deitu dugu beraz, aurrekontua lehenbailehen onartzeko eta aipatu bezala, hainbat konpromiso ditugu, bete behar ditugunak eta beraz, aurrekontuan txertatuta egotea ezinbestekoa da.


*Hemos convocado este pleno extraordinario para aprobar el presupuesto a la mayor brevedad posible y tal y como se ha comentado, tenemos una serie de compromisos que tenemos que cumplir, por lo que es imprescindible que estén presupuestados.*

Aurrekontuak beste mila alderdi ere jasotzen ditu, Antolaketa Batzordean xeheago azaldu ziren, eta ez dakit zalantzarik dagoen.

*El presupuesto también incluye mil aspectos más, que fueron explicitados con más detalle en el Comité de Organización, y no sé si hay dudas.*

Jarraian, Podemos alderdiak bere emendakina aurkeztu du.

A continuación, Podemos ha expuesto su enmienda.



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Mila Sukia: zuzenketa partzialak bi partida ukitzen ditu eta eskola publikoarekin dauka zerikusia. Emendakina bidali zaizue eta Hezkuntza Proiektutik kendu eta Urdanetara bideratuko litzateke. Proposamen orekatua da beraz.

Gure ustez eskola publikoak inbertsioak behar ditu. Azpiegitura zaharkituta dago, ez da erakargarria eta ez da eraginkorra. Jakintza Ikastolan gertatzen ez den bezala, izan ere, azken honek birmoldaketa ikusgarria egin izan ahal zuen, kooperatiba izateagatik jasotako dirulaguntzengatik.

Urdaneta birmoldatu egin behar da eta hori da emendakin honen helburua. Hezkuntza Proiektuen partida baliogabetu eta 130.000 euro Urdanetako inbertsioaren partidan sartu.

Euskal Eskola Publikoa indartzea gure lana da, itunpeko eskola pribatuen aurrean lehiatu ahal izateko. Duela zortzi urte Udaletxera sartu ginenean, 120.000 euro inguru jasotzen zituen Jakintzak, berfinantzaketa bat emanez.

Duela gutxi arte, gainera, Udal plantillako langile bat izan dugu Jakintza zaintzeko. Bigarren legegintzaldi honetan egoera hau salatu dugu eta, azkenean, Hitzarmena suntsitzera behartu genuen, urtebeteko luzapena soilik eman zelarik.

Eskola Kontseilua eratzeko proposamena ere egin genuen eta baita Ordenantza proposamena aurkeztu ere.

Denbora igaro da eta ez dakigu ezer Eskola Kontseiluaren eraketaz, eta Hezkuntza Mahaiaz badakigu diagnostiko partekatu batera heldu garela.

*Mila Sukia: La enmienda parcial afecta a dos partidas y tiene que ver con la escuela pública. Se os ha enviado una enmienda, se quitaría del Proyecto Educativo y se destinaría a Urdaneta. Se trata por tanto de una propuesta equilibrada.*

*Creemos que la escuela pública necesita inversiones. La infraestructura está obsoleta, no es atractiva e ineficiente. A diferencia de lo que ocurre en Jakintza Ikastola, que pudo haber realizado una espectacular remodelación por las subvenciones recibidas por su condición de cooperativa.*


*Urdaneta tiene que ser remodelado y ese es el objetivo de esta enmienda. Anular la partida de Proyectos Educativos e ingresar 130.000 euros en la partida de inversión de Urdaneta.*

*Reforzar la Escuela Pública Vasca es nuestra labor para poder competir ante las escuelas privadas concertadas. Cuando entramos al Ayuntamiento hace ocho años, Jakintza recibía unos 120.000 euros dándose una refinanciación.*

*Hasta hace poco hemos contado además con un trabajador de la plantilla del ayuntamiento para el cuidado de Jakintza. En esta segunda legislatura hemos denunciado esta situación y, finalmente, obligamos a la resolución del Convenio, concediéndose sólo una prórroga de un año.*

*También se presentó la propuesta de constitución del Consejo Escolar y la propuesta de Ordenanza.*

*Ha pasado el tiempo y no sabemos nada de la constitución del Consejo Escolar, y de la Mesa de Educación sabemos que hemos llegado a un diagnóstico compartido.*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Udaletik itunpeko ikastetxearen aldeko finantzaketa bidegabea amaituta, 2023ko aurrekontu hauetarako 130.000 euroko Hezkuntza Proiektuetara bideratutako partida proposatu diguzue. Beste borondaterik ez duena, ikastola modu bidegabean finantzatzea baino. Eta hori ez da berria, beste zenbait herritan ere gertatu baita.

Hori da aurrekontuak ez onartzeko gakoa. Premiazkoa da ikastetxe publikorako inbertsioetara dirua bideratzea eta gehiago egoera honetan. Luze hitz egin dugu gai honetaz eta ez dugu erantzunik jaso.

Partida hau ikastetxe guztietara bideratzeko justifikatzen da eta gure ideia hurrengoa da: zein da Ordiziako Hezkuntza Proiektua helburu duen proiektu hori? Tokiko ikasle guztien aukera berdintasuna eta aniztasuna bermatuko duena. Guretzako musika zerutiarra dirudi baina ez du lehen aipatutako helbururik ezkututzen, alegia, ikastola finantzatzea. Eta guk ezetz esaten diogu horri izan ere, ikastolak jada azpiegitura oso onak dauzka eta beraz, diru publikoa beharra duten proiektuen artean banatu behar da.

Publikoan inbertitu behar da. Publikoak berdin egiten gaituelako; gutako bakoitzaren dirua kalitatezko zerbitzu publikoak izatera bideratu behar delako.

Kontu-hartzailea: emendakinaren berri eguerdi aldera izan dut eta dirua gastu arruntetatik kapital gastuetara bideratzen denez, ez du eraginik aurrekontuaren emaitzan. Oreka mantentzen du. Beraz, ikuspuntu tekniko batetik aldeko irizpena jasotzen du.

Alkate jauna: behin hori argituta, Milak azaldu duen postura horrekiko gure jarrera zein den adieraziko dut.

*Finalizada la injusta financiación a favor del centro concertado desde el Ayuntamiento, nos proponéis una partida destinada a Proyectos Educativos de 130.000 euros para estos presupuestos de 2023. El que no tiene más voluntad que financiar la ikastola de forma injusta. Y eso no es nuevo, ya que también ha ocurrido en otras localidades.*

*Esa es la clave para no aprobar los presupuestos. Es urgente destinar dinero a inversiones para el centro público y más en esta situación. Hemos hablado largo y tendido de este tema y no hemos obtenido respuesta.*


*Esta partida se justifica para destinarla a todos los centros y nuestra idea es la siguiente: ¿Cuál es ese proyecto que tiene como objetivo el Proyecto Educativo de Ordizia? Aquella que garantice la igualdad de oportunidades y la diversidad para todo el alumnado local. Para nosotros parece una música celestial pero no esconde ninguno de los objetivos antes mencionados, que es financiar la ikastola. Y nosotros decimos que no, porque la ikastola ya tiene unas infraestructuras muy buenas y por lo tanto hay que repartir el dinero público entre los proyectos que lo necesitan.*

*Hay que invertir en público. Porque lo público nos hace iguales; porque el dinero de cada uno de nosotros hay que destinarlo para que sean servicios públicos de calidad.*

Interventora: he tenido conocimiento de la enmienda hacia el mediodía y como el dinero se destina de los gastos corrientes a los gastos de capital, no afecta al resultado del presupuesto. Mantiene el equilibrio. Por tanto, desde un punto de vista técnico recibe un dictamen favorable.

Señor alcalde: una vez aclarado esto, indicaré cuál es nuestra posición hacia esa postura que ha expuesto Mila.





## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Ezer baino lehen adierazi, Urdaneta eskola eraberritzeko hartu den konpromisoari dagokionean, proiektu hori gauzatuko duen lan-taldea Euskal Herri mailan momentu honetan proiektu hoberenak egin dituen arkitekto taldea izango dela.

Proiektua Next dirulaguntzetara ere aurkeztu zen, aurretik zetorren konpromiso bat zen. Horri eusten diogu. Gogoratu nahi dugu, era berean, aurrekontuetako inbertsio nagusia hori dela eta lehen hezkuntzako eraikina ez ezik, guraso elkartearekin landu da haur hezkuntzako patioa naturalizatu edo hobetzeko proiektua. Alde horretatik, guk uste dugu, argi adierazi dugula gure konpromisoa zein den egitura horiek eraberritzeko.

Horretaz gain, aipatu ditugun lerro horietan, komeni da adieraztea zein dirulaguntza lerro ezberdinak eduki dituen Ordiziako Udalak. Hitzarmena aipatu da eta Arartekoak eman zituen bere lehenengo idatzietatik, trukatu beharreko informazio guztia trukatu dugu eta adierazi genien, eurek emandako irizpena errespetatuko genuela. Hori horrela izan da, printzipioz, Udalak dituen eskumenen talka bat sortzen zelako.

Gogoratu nahiko nuke, Ordiziako Udalak historikoki dirulaguntza lerro bat izan duela Oianguren institutoarekin eta Heziketa Proiektuetara bideratu den dirulaguntza horrek bere trazabilitatea mantendu du, baita Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ere.

Dirulaguntzatik kanpo bai gelditu da Urdanetako guraso elkarte eta aurrean bertan birritan eskatu dio laguntza Udalarri herri mailan egiten dituzten hainbat ekintza finantzatzeko baina baita ere, goizero eskaintzen duten gosari hori finantzatzeko, eskolaz kanpoko jardueretarako, etab.


*Antes que nada, en cuanto al compromiso adquirido con la reforma de la escuela Urdaneta, decir que el equipo de trabajo que llevará a cabo este proyecto será el equipo de arquitectos que, en este momento, ha realizado los mejores proyectos a nivel de Euskal Herria.*

*El proyecto también se presentó a las subvenciones Next, era un compromiso que venía de antes. Es lo que mantenemos. Recordamos también que esta es la principal inversión presupuestaria y que además del edificio de primaria, se ha trabajado con la AMPA el proyecto de naturalización o mejora del patio de educación infantil. En este sentido, entendemos que hemos manifestado claramente cual es nuestro compromiso con la reforma de estas estructuras.*

*Además, en las líneas citadas, conviene señalar las diferentes líneas de subvención que ha tenido el Ayuntamiento de Ordizia. Se hace referencia al Convenio y desde sus primeros escritos por parte del Ararteko hemos intercambiado toda la información a intercambiar y les indicamos que respetaríamos el dictamen emitido por ellos. Esto ha sido así porque, en principio, se producía un choque de competencias que tiene el ayuntamiento.*

*Me gustaría recordar que históricamente el Ayuntamiento de Ordizia ha tenido una línea de subvención con el instituto Oianguren y esta subvención que se ha destinado a Proyectos Educativos ha mantenido su trazabilidad, también en el Plan Estratégico de Subvenciones.*

*La AMPA de Urdaneta ha quedado excluida de la subvención y en dos ocasiones este mismo año ha solicitado ayuda al Ayuntamiento para financiar diversas actividades que realizan a nivel local, pero también, para financiar el desayuno que ofrecen todas las mañanas, actividades extraescolares, etc. De hecho, hoy por hoy,*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Izan ere, gaur gaurkoz, kostu horiek familiek ordaintzen dituzte eta uste dugu bidezkoa dela dirulaguntza lerro bat ematea.

Aipatu dut lehen, lana gure eskumen esparruan egin behar dugula eta argi dago Hezkuntzan behintzat, eskumena ez dugula baina bai daukagu eskumena elkarbizitzatik eta herritik lan egiteko. Uste dugu horregatik, aukera berdintasuna eta aniztasuna sustatzea bai dela udalen eskumena eta, gure helburua oreka bada, alegia, kontuan hartuta, zaurgarri izaera ez dela soilik eskola batean ematen, aldiz, ikastetxe guztietan dago, uste dugu gure eragiteko modua ordiziar guztiei bideratu behar dela.

Herri mailan elkarbizitza sustatu behar dugu, alegia, eskolaz kanpo euren arteko jarduketak komunak sustatu behar ditugu. Beraz, herri mailako Hezkuntza Proiektuak horiek dira: oraingoz modu bateratuan egiten ez diren ospakizunak, Agenda 21en parte hartzea etab. eta uste dugu dirulaguntza lerro horrekin elkarbizitza sustatu behar dugula izan ere, momentu batean begirada leku batean jartzeak ez dugu uste laguntzen duenik. Hori da guk proposatzen duguna: ordiziar guztiei eragingo dien lerro bat ezartzea. Ikasleka planteatzen da, hau da, ikasle kopuruaren arabera planteatzen da eta, eskumenik ez izan arren, begirada luzeko adostasunak lortu behar ditugula uste dugu eta beraz, helburua Herri Itun bat lortzea izan beharko litzateke, tartean dauden eragile guztiak bilduta.

Gure apostua hori da.

Joseba Aranburu: gu Adurrek esandakoarekin ados gaude. Urdaneta ikastetxeak berrikuntza behar du eta beraz, inbertsio horrekin ados gaude.


*estos costes son sufragados por las familias y creemos que es procedente conceder una línea subvencional.*

*Antes he mencionado que tenemos que trabajar en nuestro ámbito competencial y está claro que al menos en Educación, no tenemos competencia pero sí tenemos competencia para trabajar desde la convivencia y desde el pueblo. Por ello, creemos que la promoción de la igualdad de oportunidades y la diversidad es competencia de los ayuntamientos y, si nuestro objetivo es el equilibrio, es decir, teniendo en cuenta que la condición de vulnerable no se da sólo en una escuela, sino que está en todos los centros, creemos que nuestra forma de influencia debe orientarse a todos los ordiziaras.*

*Debemos fomentar la convivencia en el ámbito local, es decir, promover actuaciones comunes entre ellos fuera de la escuela. Por lo tanto, los Proyectos Educativos Locales son esos: celebraciones que por el momento no se hacen de forma conjunta, participación en la Agenda 21, etc. y creemos que con esta línea subvencional tenemos que fomentar la convivencia, porque no creemos que poner la mirada un momento en un lugar ayude. Eso es lo que nosotros proponemos: establecer una línea que afecte a todos los ordiziaras. Se plantea por alumnos, es decir, se plantea en función del número de alumnos y, aunque no tengamos competencias, creemos que tenemos que llegar a consensos de larga mirada y, por lo tanto, el objetivo debería ser lograr un Pacto Municipal que reúna a todos los agentes implicados.*

*Esa es nuestra apuesta*

Joseba Aranburu: Nosotros estamos de acuerdo con lo dicho por Adur. «El colegio Urdaneta necesita renovación y por tanto, estamos de acuerdo con esta inversión. Lo que queda es que, según oí yo, los padres



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Geratzen dena da, nik entzun nuenez, Urdaneta ikastetxeko gurasoek dirulaguntza lerro bat eskatu zuten ikastetxetik kanpo egiten diren ekintzak gauzatzeko. Alegia, beraien eskari bat izan zen. Beraz, gu abstenitu egingo gara. Beraz, ez dut ulertzen emendakinaren zergatia.

Mila Sukia: nik hasteko Adurri erantzun nahi diot esanez, arazoa ez dela soilik Urdaneta. Gure ikuspuntua beste bat da. Asko hitz egin dugu honetaz eta begirada herri osoan jarri nahi dugu. Herrian gertatzen ari dena soilik ispilu bat da. Kanean daukagu arazoa eta horri irtenbidea eman behar diogu baina horrek ez dauka zerikusirik emendakin honekin.

Guk planteatzen dugu hemen Urdaneta ikastetxeak lehentasuna duela izan ere, eskola publikoa lehiakorra bihurtu behar da. Ea beraz, zentroen arteko ekitatea lortzen den.

Josebari dagokionean, guraso elkartekoak hemen ez daude, eta badakit zer esan didaten.

Alkate jauna: nik ere hitz egin dut beraiekin eta badakit zer esan didaten. Zentzu batean ados nago zuk egiten duzun irakurketarekin, hau da, inbertsio horretara bideratzea dena. Berriztapen proiektu horrekin hartutako konpromiso hori hor dago. Eraberritze hori aurrekontuetan jasota dago eta uste dugu beste lerro batzuetan ere jardun beharra dagoela: eskolaz kanpoko jarduerak, ekintzak, horiek guztiak partekatuak izan daitezten. Uste dugu lan asko dagoela egiteko eta zuek planteatzen duzue lan hori beste baterako uztea, eta guk uste eragin beharra dagoela.

Iñaki Dubreuil: aurrekontu eztabaida batetik udal hezkuntza sistemaren

*del colegio Urdaneta solicitaron una línea de subvención para llevar a cabo las actividades que se llevan a cabo fuera del centro. Es decir, fue una petición suya. Así que nosotros nos abstendremos. Así que no entiendo el porqué de la enmienda.*


Mila Sukia: Yo quiero empezar respondiendo a Adur diciendo que el problema no es sólo Urdaneta. Nuestro punto de vista es otro. Hemos hablado mucho de esto y queremos poner la mirada en todo el pueblo. Lo que está pasando en el pueblo es sólo un espejo. Tenemos el problema en la calle y tenemos que solucionarlo, pero eso no tiene nada que ver con esta enmienda.

*Nosotros planteamos aquí que el colegio Urdaneta tiene prioridad, porque la escuela pública tiene que ser competitiva. Por lo tanto, a ver si se consigue la equidad entre los centros.*

*En cuanto a Joseba, los de la AMPA no están aquí, y sé lo que me han dicho.*

Señor alcalde: yo también he hablado con ellos y sé lo que me han dicho. En cierto sentido estoy de acuerdo con la lectura que haces tú, que es destinar todo a esa inversión. Ese compromiso con este proyecto de renovación está ahí. Esta reforma está recogida en los presupuestos y creemos que hay que actuar también en otras líneas: actividades extraescolares, acciones, para que todas ellas sean compartidas. Creemos que hay mucho trabajo por hacer y vosotros planteáis dejarlo para otra ocasión, y nosotros creemos que hay que incidir.

Iñaki Dubreuil: hemos pasado de un debate presupuestario, al debate del sistema



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

eztabaidara pasatu gara. Etsigarri samarra da. Lau urte Hezkuntza Mahaiarekin, eta azkenean porrot txiki bat izan da.

Nik uste dut eztabaida hau egin behar dugula, baina ez da unea. Hor aztertu beharko genituzke ikastetxeei buruz egiten dizkiguten proposamenak, gure proposamenak eta abar. Baina oraindik ere falta zaigu funtsezko tresnetako bat, Udal Eskola Kontseilua, alegia.

Orain arte ez dugu Bilduren eredurik. Podemosena daukagu, eta nik uste dut ez diola indarreko araudiari erantzuten. Haratago doa eta gaiari nola aurre egin aztertu beharko litzateke.

Eta gero arazoaren testuinguru osoa dago. Matrikulazioen arazoaz gain, puntu honetara iritsi gara. Eta ez naiz oso baikorra lortutako emaitzekin. Saiatu beharko dugu. Eta hurrengo legegintzaldirako utziko dut.

Guk gure proposamena izango dugu eta gaia nola garatzen den ikusiko dugu.

Aurrekontuei dagokienez, Udal honetan ohikoa da Urdanetari % 60-40ko mailari eustea. Beharbada gehiago xehatu beharko litzateke eraginkortasun energetikora zenbat bideratzen den ikusteko. Baina ez dugu arazorik ikusten.

Hezkuntza-proiektuei dagokienez, dirua banatzeko moduari buelta gehiago eman behar zaizkio.

Zuzenketari dagokionez, ez diot zentzu handirik ikusten une honetan, EH Bildukoek ere Urdaneta ikastetxeari dirua bideratzea aurreikusten baitzuten.

*educativo municipal. Es un poco frustrante. Cuatro años con la Mesa de Educación, y al final ha sido un pequeño fracaso.*

*Yo creo que tenemos que hacer este debate, pero no es el momento. Ahí es donde deberíamos analizar las propuestas que nos hacen sobre los centros, nuestras propuestas, etcétera. Pero todavía nos falta una de las herramientas fundamentales, que es el Consejo Escolar Municipal.*

*Hasta ahora no tenemos ningún modelo de Bildu. Tenemos el de Podemos y personalmente opino que no responde a la normativa vigente. Va un poco más allá y habría que analizarlo cómo enfrentar el tema.*


*Y luego está todo el contexto del problema. Además del problema de las matriculaciones, hemos llegado a este punto. Y no soy muy optimista con los resultados obtenidos. Habrá que intentarlo. Y lo dejo para la legislatura siguiente.*

*Nosotros tendremos nuestra propuesta y veremos cómo se va desarrollando el tema.*

*En lo que respecta a los presupuestos, es práctica habitual en este Ayuntamiento mantener el %60-40 a Urdaneta. Habría que desglosar igual más para ver cuánto se destina a la eficiencia energética. Pero no vemos ningún problema.*

*En cuanto a los proyectos educativos, hay que darle más vueltas de cómo distribuir el dinero.*

*Respecto a la enmienda, no le veo mucho sentido en estos momentos, ya que los de EH Bildu también preveían destinar dinero al colegio Urdaneta.*



Gainerako aurrekontuari dagokionez, *En cuanto al resto del presupuesto, hay* badira konbentzitzen ez gaituzten gaiak. *cuestiones que no nos convencen. No le* Ez diogu buelta gehiagorik emango. *vamos a dar más vueltas.*

### ENMENDAKINAREN Bozketa:

**Aldekoak:** ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2

**Aurkakoak:** EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7

**Abstentzioak:** EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1


Beraz, emendakina ez da aurrera ateratzen.

Jarraian, hurrengo esku-hartzeak izan dira:

Mila Sukia: aurrekontuak kosta ala kosta onartu nahi ditu EH Bilduk. Horregatik aurkeztu dira udal hauteskundeetarako 10 egun falta direla. Aurrekontuen gainerakoari dagokionean, esan behar da, egia dela gainerako proposamenak txertatu direla baina oso lotsati. Emantzipaziorako alokairurako laguntzak, guk proposatu genituenak, orain onartu dira, aurten: 150.000 euro eta 55.000 euro murriztu zaizkigu. Elikagaien bankuentzat ere dirua bideratu da; Urdanetara dirua bideratu da baina behar bezala kudeatu beharko da, izan ere, zer gertatzen da Eusko Jaurlaritzak inbertsioaren %60 ordaintzen ez badigu? Izan ere, askotan gertatu izan da hori. Gure proposamena da hastea, hasi gaitezen obra egiten eta gero jasoko dugu dirua. Guk uste dugu, beste inbertsioen gisan egin behar direnak, gure eskola publikoan inbertitu eta gauzatu egin behar dela, eta asko etsita daude. Amiantoa kentzea ere, mapak egin genituen, legezko epeak beteta. Koadro elektrikoena ere aspaldi eginda egon behar zuen, nahiz eta ez den soilik diru arazoa. Hondakin organikoaren kudeaketan, 18.000 euro daude. Anselmoko baratzen itxitura ere ez da kontuan hartzen. Gure ikutua badute, baina

*A continuación se realizan las siguientes intervenciones:*

Mila Sukia: *EH Bildu quiere aprobar los presupuestos a toda costa. Por eso se han presentado a 10 días de las elecciones municipales. En cuanto al resto de los presupuestos, hay que decir que es cierto que se han incorporado el resto de propuestas pero muy tímidamente. Las ayudas al alquiler para la emancipación, que nosotros propusimos, se han aprobado ahora, este año, 150.000 euros y con una reducción de 55.000 euros. También se ha destinado dinero a los bancos de alimentos; se ha destinado dinero a Urdaneta pero habrá que gestionarlo adecuadamente, porque ¿qué pasa si el Gobierno Vasco no nos paga el 60% de la inversión? De hecho, esto ha ocurrido muchas veces. Nuestra propuesta es empezar, empezamos a hacer la obra y luego recibiremos el dinero. Nosotros creemos, como en otras inversiones, que lo que hay que hacer es invertir en nuestra escuela pública y llevarla a cabo, y muchos están desesperados. También la retirada del amianto, hicimos mapas, cumpliendo los plazos legales. Lo de los cuadros eléctricos también debería haber estado hecho hace tiempo, aunque no es sólo un problema de dinero. En la gestión de residuos orgánicos hay 18.000 euros. Tampoco se tiene en cuenta el cierre de la*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

ez gure arrastoa. Beraz, ezezkoa ematen diegu aurrekontu hauei.

*huerta de Anselmo. Tienen nuestro toque, pero no nuestra huella. Por lo tanto, damos un no a estos presupuestos.*

Besteak beste, hauek izan dira 2021eko aurrekontuei egindako proposamenetako batzuk eta, aurten ia, egoera berean gaude. Planteatu genituen udal ondasunen inbentarioa, herri bideen inbentarioa, okupatu gabeko orube pribatuak kudeatzeko partida erabilgarria, udal energia plana, etab.

*Estas han sido algunas de las propuestas a los presupuestos de 2021 y este año estamos prácticamente en la misma situación. Planteamos inventario de bienes municipales, inventario de vías públicas, partida disponible para la gestión de solares privados no ocupados, plan energético municipal, etc.*

Gaude gauden bezala eta ezetza emango diogu aipatutako arrazoiengatik.

*Estamos como estamos y les vamos a dar el no por los motivos mencionados.*

Alkate jauna: zuen zilegitasun guztia duzue. Egia da ez dela adostasunik lortu. Emantzipazioen dirulaguntzen inguruan, esan behar da, hasieratik horren filosofia izan dela etxebizitza hutsen errekar gutik hornitzea eta hor planteatzen duzue aurreko urteetako dirua jasotzea. Ez dizuegu hori sekula ukatu, baina bai adierazi dizuegu diru hori ez dela 2023ko aurrekontuetako diru bat, baizik aurreko urteetako soberakina da eta, beraz, dirua hor txertatu egin beharko da.

Señor alcalde: tenéis toda vuestra legitimidad. Es cierto que no se ha llegado a un consenso. Sobre las subvenciones a las emancipaciones, hay que decir que desde el principio su filosofía ha sido la de abastecerse del recargo de las viviendas vacías y ahí planteáis recibir el dinero de aguas anteriores. No os lo hemos negado nunca, pero sí os hemos dicho que ese dinero no es un dinero de los presupuestos de 2023, sino que es un remanente de años anteriores, por lo que habrá que inyectarlo.

Aipatzen dituzuen beste gauzetan, dirulaguntza lortzen ez badugu, proiektuak eginda daude. Egia da uste baino luzeago jo duela baina orain arte horrelako proiekturik ez da egin. Eta dirulaguntza lortzen ez badugu mailegua eskatu beharko da edo Lurzoru Ondaretik bideratu. Baina hor ere urtez urteko inbertsio plangintza bat egin beharko da.


*En las otras cosas que comentáis, si no conseguimos la subvención, los proyectos ya están hechos. Es cierto que ha durado más de lo esperado, pero hasta ahora no se había hecho ningún proyecto de este tipo. Y si no conseguimos la subvención habrá que pedir el préstamo o canalizarlo por el Patrimonio de Suelo. Pero ahí también habrá que hacer una planificación anual de inversiones.*

Aipatu ere, eguzki plakekin, Urdaneta eta plaza gaineko proiektuak egin direla eta Next-ekoekin ere aurreikusita dago Oiangun plakak jartzea. Biomasa ere aurreikusita dago.

*Mencionar también que con lo de las placas solares, se han hecho proyectos en Urdaneta y sobre la Plaza y que está prevista la colocación de placas en Oiangun con las de Next. También está previsto lo de la biomasa.*

Irisgarritasunari dagokionean, plana eta

*En materia de accesibilidad se ha realizado*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

analisia egin da. Ambizioso da, igogailuak falta direlako baina soluzioa eman zaio Altamarikako plazari ere.

*el plan y análisis. «Es ambicioso porque faltan ascensores pero también se ha dado solución a la plaza de Altamira.*

Herri bideen inbentarioa bihar informazio batzordetik pasako da eta inbentarioan ere etxe lanketa egin da eta azertu beharko da lizitazioa nola egiten den.

*El inventario de caminos rurales públicos pasará mañana por la comisión informativa y en el inventario también se ha realizado un estudio de casas y habrá que analizar cómo se realiza la licitación.*

Amiantoarekin, azertu beharko da aurrera nola egiten dugun. Dirua eskatuta dago baina kasu askotan, ez da hain erraza.

*Con el amianto, habrá que analizar cómo avanzamos. El dinero está pedido, pero en muchos casos, no es tan fácil.*

Jarraian, aurrekontuak bozkatu dira:

### BOZKETA

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7,

Aurkakoak: 8 (EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2)

Abstentzioak: PSE-EE (PSOE) 1



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2. 2023ko ekitaldirako plantilla organikoaren hasierako onarpena eta 2023ko lanpostuen zerrenda onartzea. (2021SRPT0002).**

**2. Aprobación inicial de la Plantilla Orgánica para el ejercicio 2023 y aprobación de la Relación de puestos de trabajo 2023. (2021SRPT0002).**


### **PROPOSAMENA – PROPUESTA**

#### **AURREKARIAK**

2023ko apirilaren 27an bildutako Ordiziako Udaleko Balorazio Batzordean hurrengo erabakiak hartu ziren:

#### **ANTECEDENTES**

*En la Comisión de Valoración del Ayuntamiento de Ordizia celebrado a fecha de 27 de abril de 2023 se adoptaron los siguientes acuerdos:*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

1. Espedienteak eta software informatikoa kudeatzeko administrariaren lanpostua sortzea.

*1. Crear el puesto de trabajo de Administrativo/a de Gestión de Expedientes y Software informático.*

2. Zerbitzu orokorretako gidari-peoi lanpostuaren kalifikazio-akta eta espezifikazio orria aldatzea.

*2. Modificación de acta de calificación y acta de especificaciones del puesto de trabajo de chófer-peón de servicios generales.*

3. Zerbitzu orokorretako peoi-lanpostuaren kalifikazio-akta eta kalifikazio akta aldatzea.

*3. Modificación de acta de calificación y acta de especificaciones del puesto de trabajo de peón de servicios generales.*

Lan-postuen zerrendaren aldaketak prozedura zehatza jarraitzea dakar. Zentzu honetan, doktrina jarraitua da Lan-postuen zerrendak hartzaile plural edo zehaztugabeei zuzendutako egintza administratibo izaera dutela, eta beraz, ez dauka izaera orokorreko xedapen edo erregelamendu izaera. Hala berretsi du Auzitegi Gorenak, besteak beste, 2014ko otsailaren 5eko Epaian.

*La modificación de la relación de puestos de trabajo conlleva seguir un procedimiento concreto. En este sentido, la doctrina viene considerando que la RPT es un acto plúrimo con destinatarios indeterminación y no una disposición de carácter general. Así lo ha reiterado el Tribunal Supremo, entre otros, en la Sentencia de 5 de febrero de 2014.*

Hori horrela, eta egungo Auzitegi Gorenaren doktrinari jarraiki, Langileen Zerrendaren aldaketan jarraitu beharreko prozedura hurrengoa da:

*En este sentido, y de conformidad con la doctrina actual del Tribunal Supremo, el procedimiento a seguir para la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo es el siguiente:*


1-. Toki Erakundeetan, Langileen Zerrendaren aldaketa onartzeko organo eskumenduna, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.i artikuluari jarraiki, Udaleko Osoko Bilkura da.

*1-. El órgano competente para la aprobación de la RPT en las entidades locales, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 22.2.i de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, es el Pleno del Ayuntamiento.*

2-. Behin Osoko Bilkurak Langileen Zerrendaren aldaketa onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da, egintza administratibo izaera duen heinean bere onarpenetik bertatik sortzen dituela efektuak, nahiz eta argitalpena eskatu, baina azken hau ez da eraginak izateko ezinbesteko baldintza, aldiz, hartzaile guztien publikazioa eta irismena bermatzeari lotuta dago.

*2-. Una vez aprobada la modificación por el Pleno de la Corporación, ha de publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En cualquier caso, debemos tener en cuenta que al tratarse de un acto administrativo produce efectos desde su aprobación, si bien se exige su publicación, no como requisito de eficacia, sino para que sean públicas en el sentido de que puedan ser conocidos por los interesados.*





## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

Era berean, kasu honetan, espedienteak eta software informatikoa kudeatzeko administrari, zerbitzu orokorretako peoi eta zerbitzu orokorretako gidari-peoi lanpostuen kasuan, plantillaren aldaketa ere ematen da eta kasu honetan, udal Aurrekontuaren onarpenerako jarraitzen den prozedura bera jarraitu behar da, baita erakusketa publikorako izapide-aldia eta publikazioa ere (**TATB 126.3 artikulua**).

**Hau guztia kontuan hartuta, hurrengo AKORDIO PROPOSAMENA egiten zaio Osoko Bilkurari**

### **AKORDIO PROPOSAMENA:**

1-. Ordiziako Udaleko lan-postuen zerrendaren aldaketari hasierako onespena ematea, hurrengo zehaztasunekin:

- Espedienteak eta software informatikoa kudeatzeko administrariaren lanpostua sortzea.
- Zerbitzu orokorretako gidari-peoi lanpostuaren kalifikazio-akta eta zehaztapenen akta aldatzea.
- Zerbitzu orokorretako peoi lanpostuaren kalifikazio-akta eta zehaztapenen akta aldatzea.

2-. Ordiziako Udaleko lan-postuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*Del mismo modo, en caso de los puestos de trabajo de administrativo de gestión de expedientes y software informático, peón de servicios generales y chófer-peón de servicios generales, conlleva la modificación de la plantilla, y en este caso, se debe seguir el mismo procedimiento que para la aprobación del Presupuesto municipal, incluido el trámite de exposición pública y el de publicación (**art. 126.3 TRRL**).*


*Teniendo en cuenta todo lo anterior, se eleva al Pleno la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO***

### **PROPUESTA DE ACUERDO:**

1-. *Aprobar inicialmente la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Ordizia, con las siguientes precisiones:*

- *Crear el puesto de trabajo de Administrativo/a de Gestión de Expedientes y Software informático.*
- *Modificación de acta de calificación y acta de especificaciones del puesto de trabajo de chófer-peón de servicios generales.*
- *Modificación de acta de calificación y acta de especificaciones del puesto de trabajo de peón de servicios generales.*

2-. *Publicar el anuncio de modificación y aprobación de la RPT en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0006

3-. Ordiziako Udaleko plantillaren aldaketari hasierako onespena ematea, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jartzea 15 egun balioduneko epean. Epe horretan interesdunek erreklamazioak aztertu ditzakete. Akordioa behin-betikotzat onartuta joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada; bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

3-. *Aprobar inicialmente la modificación de la Plantilla del Ayuntamiento de Ordizia para poner a exposición del público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por 15 días hábiles, durante los cuales los interesados podrán examinarlos y presentar reclamaciones. El acuerdo se considerará definitivamente aprobado si durante dicho plazo no se hubiesen presentado reclamaciones. En caso contrario, el Pleno dispondrá de un mes para resolverlas.*

4-. Behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean beharko da, eta Estatuko Administrazioari eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinarazi, gehienez ere 30 egun balioduneko epean (TATB 127. art.)


4-. *La aprobación definitiva deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y comunicarse a la Administración del Estado y a la Administración de la Comunidad Autónoma, en el plazo máximo de 30 días hábiles (art. 127 TRRL).*

Behin aurrekontuen bozketa eginda, eta aurrera atera ez direnez, bilera amaitutzat jo da.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo el Secretario, certifico.*

<b>Sinatzaileak</b> Firmantes	<b>ALKATEAK / EL ALCALDE</b> Adur Ezenarro Agirre <b>IDAZKARIA / SECRETARIA</b> Ainhoa Esnaola Zubeldia
	<b>Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:</b> / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAF2CYN.dAEw">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAF2CYN.dAEw</a>